



*Ezkerrean Cédric Noblia, Andoni semea besoan, eta Gaby Lahirigoyen Aihertarrak, eskuinean Xabi Juanena eta Iñaki Jauregui Saratar txapeldunak*

### **Helduek tanto soil batez txapela galdu**

Gure pilotariak, Euskal Herriko txapelketaren kondu, esku huska 3. mailan, finalean galdu dute Saratarren kontra, tanto soil batez 40 eta 39, partida eder bat eginik. Partida Milafrangako trinketean

iragan da igande goizean. Halere goresmenak merezi dituzte Cédric Noblia eta Gabriel Lahirigoyenek hein hortara heldurik. Goresmenak ere Sarako Xabi Juanena eta Iñaki Jauregui aurtengo txapelduner.